



FUNTSEZKO JARDUERAK

Study(H)all proiektuaren jarduera garrantzitsuena webgunearen funtzionamenduari eustea da. Horretarako, ezinbestekoa da beste hainbat ekintza burutzea. Plataforma hau aurrera eramateko, programadore bat edota weba sortuko digun Arazi enpresa kontratatu beharko dugu. Era berean, ez denez produktu fisikorik sortzen, ez da beharrezkoa izango ekoizpen sistema bat garatzea.

Behin plataforma guztiz sortuta dagoela, webgunearen mantenimendua bermatu behar da. Beste hitz batzuetan esanda, arazorik ez daudela zihurtatu behar dugu. Era berean tresna eta baliabide berriak garatuz. Horretarako, web-a sortu duen programatzaile edota enpresa berdinarekin lanean jarraituko dugu, hauek bahit dira tresna %100ean ezagutzen dutenak.

Study(H)all-en 4 kideek osatzen dute. Hauek, lan desberdinak izango dute: produktua eskaintzea, psikopedagogo lanak egitea, marketing-aren ardura hartzea, eta azkenik, kontabilitatea.

Batetik, plataformako tresna zehatz baten garapenerako, hau da, antolakuntza metodoen digitalizazioarako, programatzaile edota enpresa horrek psikopedago eta antolakuntzan aditua den pertsona batekin lan egingo du. Profesional horrek antolakuntza teknika desberdinen inguruko informazioa bildu, horiek aplikatu ahal izateko tresnak edota metodoak sortu eta programatzailearekin batera horiek digitalizatzeko bidea aurkitzea izango da.

Enpresaren sortzaile edo akzionistei dagokioenez, bi jarduera nagusi izango dituzte. Alde batetik, behin tresna sortuta suertatu daitezken arazoak eta zalantzak argitzea, hau da, bezeroari arreta zerbitzua. Jarduera ezinbestekoa bezeroaren esperientzia baliagarria eta eroso izatea bermatzeko.

Bestalde, publizitate prozesua ere talde berdinari dagokio. Alde batetik, gure bestelako bezeroak izango diren unibertsitate eta irakaskuntza zentroekin harremanetan jartzea nolako publizitatea emango dugun adostu ahal izateko. Hori, psikopedagogoaren eta publizitatean aditua den pertsonaren ardura izango da. Bestalde, gure enpresa eta proiektua bera ezagutzera emateko publizitate prozesua ere N2J taldeari dagokio. Hau da, erdi-mailako ikastetxeekin harremanetan jartzea gure produktua aurkeztu eta geletan hizketaldi informatiboak eman ahal izateko, unibertsitate eta goi-mailako ikasketa zentroen ferietara joatea bertaratuko diren ikasleei gure tresnaren berri emateko, eta iragarikiak zabaldu ahal izateko, poster eta panfletoen diseinua eta ikus-entzunezko iragarkiaren grabaketa egitea.

Lehenago esan bezala, N2J taldearen barruko kide bat psikologian eta pedagogian aditua da, beraz berak izango du lehenik eta behin antolakuntza metodo berritzaile eta desberdinak aurkitu eta programatzailearekin batera horiek aplikatu ahal izateko tresnak sortzeko ardura. Bigarren kide batek marketing eta publizitatearen atala beteko du. Beste batek finantzen eta gastuen kudeaketaren ardura izango du, horren barruan dirulaguntzen kudeaketa egokia ezinbestekoa izango da, gainera, bezeroari arreta zerbitzua ere bere esku egongo da. Azkenak produktuaren salmentaren eta informazio saioak ematearen ardura izango du, proiektua ezagutzera eman ahal izateko.

N2J TALDEA